

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EGILE TESTUA



2019/2020 Ikasturtea

Haur Hezkuntzako Gradua

Lan Modularra

HH - GA1

Egileak:

Barbon Soto, Naila

Bengoetxea Uriarte, Maddi

Branson Sanchez, Ester

Charola Amenabar, Julen

AURKIBIDEA

1. Aukeratutako gaiaren zergatia	2
2. Istorioaren azalpena	3
3. Aniztasunaren ikuspegitik gure proposamena	5
4. Taldearen ebaluazioa	6
5. Informazio gehigarria	7
6. Erreferentzia Bibliografikoak	8
7. Eranskinak	9

Aukeratutako gaiaren zergatia

Aniztasunaren munduan murgilduta egonik, gaur egun oraindik ere “tabú” den gai bati heldu diogu, minbizia duten haurrena hain zuzen ere. Gai delikatu eta aldi berean aberasgarria dela iruditzen zaigu. Izan ere, minbiziaren mundua gogorra da baina asko ikasten da ere bertatik. Gizartearen aldetik lanketa handia behar duela iruditzen zaigu eta ezjakintasuna da landu beharreko lehen urratsa. Horregatik, haurren minbizia mahai gainean jartzea erabaki dugu, aniztasunaren ikuspegitik erreparatuz garrantzitsua iruditzen zaigu gai hau ikustaraztea. Modu honetan minbiziaren inguruko jakintasunaren eraikuntzan martxan jartzen gara, datorren etorkizuneko belaunaldiak “normaltasun” batetik ikusteko eta tratatzeko.

Lehenik eta behin, “normaltasun” horretara eramateko garrantzitsua da argi uztea minbizia gaixotasun larria dela, bai, baina sendagarria, eta ez da aipatu ere ez egiteko bezain izugarria. Hain zuzen, minbizia ez dela kutsakorra, eta gaur egun asko eta asko sendatzen direla, minbizi-mota batzuen % 75 edo 80a, alegia (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, 2005). Minbiziaren munduan familiaren inplikazioa oso garrantzitsua da, baita irakasleena ere. Esan beharra dago hezkuntzak botere handia duela mezuak transmititzeko orduan eta horretaz baliatzea benetan aberasgarria dela. Era berean, arduradun nagusia da gai hau normaltasunez tratatzeko eta behar diren baloreak transmititzeko. Hasieratik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila-k (2005) esaten duen moduan, beraien zeregina izango da “aurreikusezina ere baden egoeraren kontrola eta sendotasuna berreskuratzen laguntzea” (16.or.). Horretaz gain, “gainerako haurrengan enpatia- eta onartze-sentimendu positiboak pizten saiatu beharko dute, betiere aintzat hartuta adinak nolako eragina duen eskolara itzuliko den ikasleak bizi izan dituen emozioetan.” (29.or.).

Bestalde, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila-k (2005) defendatzen du garrantzitsua dela gelakideei hainbat azalpen ematea, betiere familiak eta haurrak baimena ematen badute. Informazioa ematea nahiz jasotzea lagungarria da horrelako egoeretan; hala nola, zein motatako minbizia duen, zein ondorio ekarriko dituen, etab. Modu honetan, errazago ulertuko dute gaixo dagoen haurra eta ospitaletik itzultzean haurra hobeto integratuko da eskolan.

Gainera, nahiz eta hasiera batean ikastetxea bigarren mailako gaitzat hartu tratamendu medikoaren aldean, eskola beti presente egotea ezinbetsekoa da. Izan ere, eskolan atzeratzeak eragin kaltegarria izan dezake gaixoaren aldartean, eta haren beldurra

eta antsietatea areagotu egin daiteke. Beraz, eskolaren eta haurren arteko komunikazioa ez etetea funtsezkoa da. Horregatik, ospitaletako irakasleek haurren ikastetxeko tutorearekin koordinatuta jardungo dute, euren lana eraginkorra izatea lortzearren. Komunikazio hori eta ikaslearekin berarekin sortzen den komunikazioa lagungarriak izango dira ikasleak bere gelako kide gisa duen nortasunari eusteko. Minbizia duten haurren eskola-integrazioari buruz egin diren azterlan pilotuek zera frogatu dute: tratamendua jasotzen ari diren bitartean eskolarekin harremanetan jarraitzen dutenen haurrak direla ondoen integratzen direnak hara itzultzean. Honekin ondorioztatzen dugu tratamenduaren etapa honetan ez soilik irakasleekiko harremana, bere ikaskideekin kontaktua mantentzea ere ezinbestekoa dela. Berriro ere hezitzaileak rol garrantzitsua izango du, bera izango baita gelako haurren eta ospitalizatuta dagoen hurrearen arteko zubia.

Batik bat, gai honen aukeraketaren helburu nagusia honako hau izan da: Gizartean orokorrean, eta segmentu zehatz batzuetan, gaixotasuna ahalik eta gehien normalizatzea (...) Normalizazioa kantzerraren gaixotasunari buruz askatasun eta normaltasun osoz hitz egin eta jarduteko aukera egotea litzateke, gaixo direnak baztertu eta gutxietsiak izan gabe, honetaz gain, gizarteak gaixotasuna duten pertsonetikiko duen erreakzioan aldaketa positiboak egotea. (46.or.)

Era berean, Olano-k (2019) egiten dituen baieztapenetan guztiz bat gatoz “behar beharrezkoa da gaixotasunaren normalizazioa, gizarte gaixotasuna gaur egun badagoela eta aurrerantzean egoten jarraituko duela ohartaraztea, eta gainera, normalizazio ezak, gaixotasunari aurre egitea ekiditen diola. Ondorioz, guztion kalterako jarrera dela normalizazio eza.” (47.or.).

Istorioaren azalpena

Hau guztia ipuin zoragari baten bitartez irudikatu dugu, Loretxo protagonistak minbizia duen haur baten lekua hartuz. Istorioan Loretxoren ospitaleratze egoera isladatuko du, baita bere inguruko pertsonekin duen harremanaren garrantzia. Horretarako, metaforak erabili ditugu, hauen indarra erabiliz nahi genituen mezuak transmititzeko. Azkenik, hausnartzeko amaiera batekin bukatu dugu.

“Loretxo izarra” ipuinak minbiziaren munduko aniztasuna ikustarazteaz gain bestelako keinu batzuk ere egiten ditu; hala nola, eskolan bere gelakideen artean dagoen aniztasuna.

Loretxoren gelako lagunak ez dira bera bezalako beste lore batzuk, baizik eta Txori eta Harri bat. Honek gaur egun **eskoletan aurkitzen dugun aniztasunari** egiten dio erreferentzia baita gizarte anitz honetan dagoen desberdintasuna islatzen du ere.

Loretxo da gure protagonista, kolorez betea, haurrak duten poztasun, indar eta mundua esploratzeko gogo hori irudikatuz. Baina egun batean, **kolore** horiek **galtzen** hasiko da, **gaixotasunaren** ondorioz. Ipuin honekin lortu nahi genuena zera da, nahiz eta kolorea galdu, alaitasuna ez dela inoiz galdu behar, eta horretarako lagunen eta familiaren babesa ezinbestekoa da momentu horietan. Minbiziaren garaipen prozesu hori ez genuen era triste batean irudikatu nahi. Nahiz eta gogorra den egoera eta sentimendu positiboak izateko zailtasunak izan zenbait uneetan, indarrez eta positiboki egiten badiogu aurre emaitza hobeak lortzen dira. Are gehiago, etapa txar bat dela ikusi beharrean, asko ikasiko dugun pasarte bat dela pentsatu behar dugu.

Bestalde, eskola irudikatu nahi izan dugu leku libre batean jolasteko aukera dutena, elkarrekin batera jolasten ikasten dutena. Bide horretan dute **Zuhaitz**, berien **bidelagun** dena. **Naturaren presentziari** garrantzia eman diogu, haurren garapen prozesuan aberasgarria den faktorea iruditzen baitzaigu.

Aipatzekoa da ere petaloen erortzea, momentu gogorra edonorentzat. Paregabea iruditu zaigu loreak **petaloak galtzen** hastea, **kimioa** irudikatzeko. Kasu honetan erleak medikuaren papera hartzen du, zeinak kimioaren azalpena ematen dion baita “fisikoki” tratamendua injeztatzen dion. Honekin esan nahi genuen hurrei ere informazioa eman behar zaiela, zailagoa baita egoerari aurre egitea ezjakintasunetik abiatuta. Gainera, eskubide guztia dute jakiteko zer gertatzen zaien eta zein pauso emango diren bere gaixotasuna sendatzeko.

Loretxo **ospitalean** dagoela irudikatzeko, **lorontzia** irudikatu dugu, azken finean lorontziak leku itxia, askatasunik gabea irudikatzen duelako. Irakaslea bixitan joaten da, bere babesa eta bere ondoan egongo dela argi utziz. Beraz, ikus daiteke **ospitalea eta eskolaren** arteko **harremana** ezinbestekoa dela momentu hauetan. Gainera, irakasleak, freskagarri baten bitartez loretxo ureztatzen du, bere beharrak kontuan hartzen dituela argi utziz, eta egoera horretan bere ondoan egongo dela transmitituz. Baina ez soilik irakaslea, bere kideak ere berarekin daudela adierazten dio. Beraz, ikusten da ere gelakideen arteko harremana mantentzen dela irakaslearen bitartez. Hortaz, esan daiteke, eskolan ez ezik

ospitalean ere elikatzen jarraitzen duela Loretxo, hau da, bere garapen prozesuan laguntzen, bere beharrak identifikatuz eta asetuz.

Argi utzi nahi dugu eguzkiaren sinboloa zein den, eguzkia momentu oro dagoen irudia da, baina batez ere ospitalean dagoenean. **Eguzkiaren** bitartez **familia** irudikatu nahi izan dugu. Momentu guztietan hor dagoena, berotasuna eta segurtasuna ematen dioena hain zuzen ere.

Aurretik aipatutako irakasle eta gelakideen harremana hor egoten jarraitzen duela eta beretaz gogoratzen direla ikusteko, izar baten bila joaten dira zerura, horren bitartez gogoratzen baititu lagunak Loretxok. Beraz, bere lagunak, berarekin uneoro egongo direla ikusteko, izar bat oparitzen diote. Honek Loretxori indarra eta poztasuna ematen dio, argia ikus daiteke bere inguruan, kolore pixka bat berreskuratu duela esan daiteke, honekin indarra eta zoriontasuna irudikatuz. Baina hurrengo egunean, lagunak zerura begiratzean izar bat ikusten dute, benetan disdiratsua beste izarren artean. Guk **amaiera ez dugu guztiz itxi**, izan ere bakoitzak Loretxori gertatu zaiona bere irudimenean utzi dugu. Baina izenburuari erreparatzen badiogu, argi ikus daiteke loretxo ez dagoela iada gurekin.

Topatu dugun zailtasunari dagokionez, amaiera ez genekien airean utzi; Loretxo hil zela irudikatu, gelakideekin eskolara itzultzen zela... Baina azken finean gaur egun gertatu daitekeena da, eta heriotzari, errealitate horri ere aurre egin behar diogu. Era berean, amaiera honekin aniztasunaren inguruko beste ate bat irekitzeko aukera dugu, dolua dena.

Aniztasunaren ikuspegitik gure proposamena

Aniztasunaren ikuspegitik, minbiziaren gaiaren ekarpen garrantzitsuena da ez dugula patologia bezala kontsideratu behar baizik eta ikuspegi anitz batetik baizik. Hau da, nahiz eta umea gaixo egon, argi izan behar dugu benetan inporta zaiguna dela osotasunean bere ongizatea. Gure egitekoa da haur horiei gaixotu aurretik zuten bizitzarekin ahalik eta lotura gehienak mantentzea, hala nola, jolasteko aukera, zoriontsu izatekoa, ikastekoa aukera etab. Errealitate honetan ere kontuan izan behar dugu haur hauek muga batzuk ere badituztela, eta hori ez dugu ezkutatu behar, baizik eta desberdintasun horretan lagundu behar diogu eta irakasleek ere hortan lanketa egin. Eskola eta irakasleak kontzientzia hori izanik, haur horiekiko gertutasuna adierazi behar dute, komunikazioa ezinbesteko baliabidea baita. Abiapuntua eta mugak zeintzuk diren jakinda, bizitzan “ohikoa” dena egitekoa bermatu

behar diogu. Horretarako, ezinbestekoa da irakasleen eta eskolaren inplikazioa. Kasu honetan, hau guztia izango litzateke aniztasunari erantzutea.

Lan guzti hau egin ondoren esan nahi duguna zera da, nahiz eta haurrak gaixorik egon bere ikasteko eskubideak bermatu behar ditugula, 1989ko Haurraren Nazioarteko Eskubideen Konbentzioak defendatzen duen moduan. Askotan ikusi izan dugu haurrak gaixotzerakoan hezkuntza alde batera uzten dutela, pentsatzen dutelako dauden egoeran ezin dutela gehiago ikasi. Baina Maitederren hitzaldian ikusi genuen bezala, zeina Pausokako lehendakari eta garun paralisia duen haur baten ama den, irakasleok haurrak onartu, maitatu eta klasean inkluitu behar ditugu, haien egonaldia ahalik eta hoberena izan dadin. Azken finean, beraien eskubidea da eta hori bermatzea gure betebeharra da. Hau “Buda explotó por vergüenza” dokumentalean argi ikusi genuen. Nahiz eta bertan islatuta agertzen zen egoera eta minbizia duen haur baten egoera guztiz desberdina izan, biak hezkuntzarako eskubidea dutela defendatzen dute.

Bestalde, ezin dugu familiaren egoera alde batera utzi. Maitederren esperientziaren bitartez argi ikusi dugu oso garrantzitsua dela familiekin izan behar dugun tratua. Guk aukeratutako gaiarekin lotuz, hau da, minbizia duen haur baten kasuan, denbora eskaini behar zaie egoera hori ulertzeko eta asimilatzeke, baina aldi berean haiekin kontaktua galdu gabe. Are gehiago, familia eta eskolaren arteko harremanak estutu egin behar dira horrelako egoeretan, eskolaren partetik laguntza hori sentitu behar dute. *Guía de apoyo para profesores* (Fernandez, Medin, Pascual, Yelamos, d.g.) testuak esaten duen bezala, egoera normalizatzen joaten den heinean elkarren arteko harremanekin jarraitzea errazagoa izango da; hala nola, familiei deitzea haurrari inguruan galdetuz, haurraren jarraipenaz informatu, haiekin enpatizatu, entzun, etab.

Taldearen ebaluazioa

Lan honekin hasi aurretik adostu genuen lan hitzarmenari erreferentzia eginez, ondorioztatu dezkegu taldeko partaide bakoitza arduratsua izan dela bere zereginak betetzerakoan. Presentzialki lan egiteko aukera genuenean, norbaitek etortzeko aukerarik ez bazuen lehenagotik abixatzen zuen eta ez zen arazorik egoten. Kasu horretan ere kontutan hartzen zen lana modu ekitatibo batean banatzeko.

Hau, ordea, zailagoa suertatu zaigu bizitzea tokatu zaigun egoera honetan. Hasiera batetik saiatu gara lanaren pisua ahal zen neurrian berdina izaten. Egia da ez dela hain erraza baina ustez lortu dugula. Komunikazioari dagokionez, nahiz eta desorosoagoa izan pantaila baten bitartez hitz egitea, lortu dugu era berean gure iritziak plazaratzea baita adostaunetara iristea. Betiere errespetatu ditugu ezarri ditugun hitzorduak eta bertan pasatako denbora ahal den probetxuzkoa izaten saiatu gara.

Garrantzitsua iruditzen zaigu gure artean izan dugun giroa aipatzea. Hasieratik bukaeraraino errespetuz jokatu dugu taldeko kide bakoitzarekin eta besteen ideiak eta iritziak entzuteko prest egon gara.

Informazio gehigarria

Aurretik aipatu dugun moduan, minbizia lantzen duen istorio honek beste hainbat bide irekitzen dizkigu. Alde batetik doluaren gaia, zeina oso interesgarria suertatzen zaigun. Iruditu zaigu minbiziaren gaia eta doluarena dena batera lantzea gehiegizko izan daitekeela baina ipuin honen amaierarekin honen inguruko lanketa egiteko bidea irekitzen digu. Oso aberasgarria den gai bat da gure iritziz, lantzeko funtsezkoa.

Beste alde batetik, minbiziaren gaiak ere beste gaixotasun batzuen inguruko lanketen sustapena sortu dezake. Mundu hauen inguruko kontzientziazioa izatea lagungarria dela iruditzen zaigu etorkizun batera begira. Modu honetan, topatuko dugun aniztasunari erantzun hobeago bat ematen jakingo dugu.

Hau guztia aipaturik, azpimarratu nahi dugu irakaslearen garrantzia. Nahiz eta hitzezko komuniazioaren inguruan asko ez hitz egin, garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Izan ere, transmititzen diren mezuak eta horiek nola transmititzen diren eragin handia dute bai gaixo dagoen haurraren, bere familiarengan eta gelako beste haur guztiengan. Honetaz gain, ezinbestekoa da ere egoera honen aurrean irakasleak hartzen duen jarrera, esate baterako, bere eskuetan dago gaixorik dagoen haurra nahiz eta ez fisikoki gelan egon beti presente izatean.

Argi utzi nahi dugu ere lanketa ez dela soilik gaixo dagoen haurrearekin eta bere familiarekin egin behar, gainontzeko ikasleekin ere. Era berean, irakaslea inplikatu egin behar da; irteerak antolatu daitezke ospitalera, familiak bisitatzera joan, etab. Funtsean,

eskola, etxea eta ospitalaren artean elkarlanean aritzea eta komunikazio hori gauzatzea. Haurraren ongizatea bermatzea helburu izanik.

Erreferentzia Bibliografikoak:

Euskallegezalea.(d.g.). Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa (NBE). 2020ko apirilaren 22an berreskuratua, hemendik hartuta:

<https://sites.google.com/site/euskallegezalea/nazioartekotestuak/haurren-eskubideei-buruzko-konbentzioa-nbe-1>

Fernandez, B., Medin, G., Pascual, C. eta Yelamos, C. (Data Barik). *Guía de apoyo para profesores*. 2020ko otsailaren 18an berreskuratuta, hemendik hartuta:

<http://sauce.pntic.mec.es/falcon/camcer.pdf>

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2005). *Minbizia duten haurrak heztea:*

Familiarentzako eta irakasleentzako gida (2). Hemendik hartuta:

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_es/cu_inc/adjuntos/16_inklusibitatea_100/100004e_Pub_EJ_guia_cancer_e.pdf

Majmalbaf, M. (produktorea) eta Makhmalbaf, H. (direktorea). (2007). *Buda explotó por vergüenza* [pelikula]. Iran: Arri Film

Olano, M. (2019). *Aspanogi Elkartearen Komunikazio Plana* (Gradu amaierako lana). Euskal Herriko Unibertsitatea, Donosti, Espainia.

Eranskinak

I ERANSKINA: moduloko ebaluazioa

1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue?
Orokorrean, iruditu zaigu ezarrita zeuden konpetentziak modu batean hala bestean landu direla. Egia da batzuk gutxiago landu ditugula eta konpetentzia horiek ez ditugula hain sakonki garatu, Hezkuntza Esku hartzeko diseinuan aipatzen den “irakaskuntza-ikaskuntza prozesurena ulertzea, eta curriculum-elementu berriak barneratzea jarrera kritiko eta ekintzaile bat egin ahal izateko” adibidez. Bestalde, hazkunde pertsonala konpetentziari dagokionez, uste dugu modu eraginkor batean garatzeko aukera izan dugula.
2) Moduluaren nondik norakoak azaltzen dituen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
Aproposa dela uste dugu. Izan ere, atal bakoitzean zer egin behar dugun argi azaltzen du eta hasieratik dago antolatuta aste bakoitzean zer egin behar den, lana era eroso batean egin ahal izateko. Gainera, hasieratik aipatzen du nolakoa izango den ebaluazioa.
3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).
Lan Modularra planteatuta dagoen moduan polita dela iruditu zaigu. Hasieran, ideia bilatzea kosta zitzaigun pixka bat baina behin hori finkatuta motibaturik hasi ginen lanean, ideia desberdinak plazaratuz. Zoritxarrez, bizitzea tokatu zaigun egoera hau dela eta gure motibazioa gutxitu egin da. Bai egoeraren mugak eta bai gure motibazioaren eraginagatik, ez dugu gustatuko litzaigukeen emaitza lortu. Baina hala ere pozik gaude egin dugun lanarekin.
4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).
Gure inguruko irakasleek (tutoreak eta beste irakasle batek) inplikazioa eta prestutasuna izan dutela iruditzen zaigu. Gure galderak beti erantzuteko prest eta gure zalantzak kudeatzen lagundu digute. Egoera zail honetan prest egon dira edozein momentuan gurekin bilera egiteko. Era berean, Lan modularra aurrera eramateko baliabideak eskaini dizkigute.
5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?
Lan hau polita iruditu zaigu, beste lan modularrekin alderatuz. Praktikoagoa izan da, baita malguagoa ere. Gai asko lantzeko aukera eman digu, azken finean gaur egungo gizartean garrantzi gutxiago duten gaiak diren horiek. Gainera, etorkizunean irakasle garen unetik

baliagarriak izango diren gaitasunak garatzeko aukera eskaintzen dizkigu, hau da, ikuspegia zabaltzen. Honela, topo egingo dugun aniztasun horri errazago aurre egin ahal izango diogu.